


Gauza asko eta ernegarriak ageri dira liburu honetan, izan ere Ezkioko agerpenen inguruan egin den ikerketarik xehe eta agortzaileena baita, zalantzarik gabe, antropologo amerikarrak egin duena, eta ez da batere erraza zer duen miresgarriena: idazleak hartzen duen ikuspuntu orekatu eta aldendua bezain berneratua, ala giroa eta garaiko interes eta hartuemanen sarea berregitean ageri duen sentiberatasun eta ezagutza, urruneko eta hurbileko gertakariak elkarrekin bigiztatzan nabari duen trebezia txundigarria ala gehiegi esplizitatu gabe sakonean egiten dituen galdera antropologiko-filosofikoak: “Zer ikasi nahi du jendeak zerutik lurrean ikasi nahi ez duenik? Nola huts egiten izan dio elizek premia horiek asetzerakoan? Nolako eragina dute gudan ikusleek eta ikusleak urtenarazten dituzten sinestedunek? Nolako eragina dute ikuspenetako mezuek zenbait gaitan? Bistan dago Ezkioko ikuspenen gisakoak ugari zian direla La Saletetik hasi eta 90. hamarkadako gerra garaiko Bosniara eta Amerikara suburbanora bitartean. Egileak eta argitaratzaileek uste dutenez ikuspen eta ikusleen auziak oihartzun berezia du gure mundu honetan milurteko berri batera hurbiltzen ari garen heinean.

Hasieran eta berariaz, edukiaren aberastasuna eta kontaeraren liluragarritasuna aipatu ditut; agian norbaitek pentsa lezake liburuaren xarma hori, datuen eta eremu-ikerketaren kalteetan lortu dela. Horrelako susmorik inondik ere sor ez dadin, eta erreseina hau amaitu aurretik aditzera eman nahi dut, liburuak ia ehun eta berrogeita hamar orrialde dituela letra txikiz idatziak ohar, bibliografia eta gai- eta izen-aurkibidez hornituak. Hemeroteka-lana nolakoa izan den ideia bat emateko, autoreak erabilitako artikulua sinatu eta sinatu gabeen aipamenak bakarrik hogeita bost orrialde trinko hartzen dituela esan behar da. Beraz, horrela bakarrik ulertzen da nola berreraiki ahal izan duen egileak irakurketa desberdinak onartzen dituen fenomeno komplexuaren mundu hain ñabar eta trinko hori. Seguraski, liburu honetan zehar, Joseba Zulaika, Itziariko antropologoaren “hasieratik bukaerara proiektua buruz eta bihotzez bultzatu duenaren” ekarpena ere kontuan izatekoa da, nonbait, William A. Christian-en eraikitze-lan gaitz horretan.

Xabier Mendiguren Bereziartu



DIRASSAR, Janbattir
Hegiko bordatik
Donostia: Elkar, 1995. - 131 p.
ISBN 84-7917-543-5

Idazlea nor dugun: Lapurdiko Hazpainen jaioa 1937-an, nekazarilangile familia xume batean, kazetaria. Euskaraz idazten hasi zen 16 urteetan “Herria” astekarian, eta oraindik horretan dirau, astero artikulua bat edo biek. Laster “Sud-Ouest” egunkarian sartu zen eta 40

urtez bederen hor ihardun du Euskal Herriko berrietan, gehienik frantsesez, gure mintzairari oso leku eskasa uzten baitio kazeta horrek. Orokorki, euskaraz eta frantsesez asko idatzi du Dirassarrek prentsan, et hona non agertu digun bere lehenbiziko liburua, haurtzaroko oroitzapenez betea.

Liburu sotila da, 133 orrialdekoa. Axalean dakar, Urtsu mendiaren iparraldeko maldan, lurreratua den borda baten argazkia: hain zuzen ere, titulua eman dion "Hegiko Borda" dugu. Aita iratze pikatzen ari zitzaion hor, goizeko askaria, gosaria ekartzen zion semeak eskolako opor egunetan. Hortik begista ditzake Hazparne, Lapurdiko ezpondak Landesetaraino, mendebaletik itsasoa, ekialdeetik Mendiak Ahuneraino.

Aintzin solasa ondu dio Piarres Charritton Ehulateiko hazpandar euskaltzainak, euskara batua ederki txertatuz herriko sustrai sanoan. Liburu horretan xoraturik aurkitzen ditu bere gaztaroko oroitzapenak, Dirassar baino gehituagoa izanez.

Gero, 9. orrialdeetik 131.era, 32 kapitulu labur bihikatzen ditu Dirassarrek, arrosario konderako aleak bezala elgarri lotuak, letaniak bezala guraso zenduei eta iragan denborari eskainiak. Hegiko Bordatik ikusten diren bazterrak margoturik, diosku zein ahul eta mendre sortu zen adinean aurrera joanak ziren aitamen haur bakarra, baina zinez "bizi nahi" zena. Bere jaiotza kokatzen du 1937-ko giroan, "Eskualduna" astekariak eman zituen berriak aipatuz: hegoaldeko gerla zibila zen aipu, iparraldean Franco-zalea zen gehiengoaren ikuspegitik.

Ez zen aberatsa izan Dirassarren haurtzaroa, aitamek alokatzen zuten "Iriberria" baserri zaharrean, Zelai auzoko plazatik hurbil. Baina moldatzen ziren, beste hazpandar asko bezala, erdi laborari, erdi langile "Bi baratze, bi pentze eta landa mutur bat, ez zen arras laborari etxe bat bainan barrokian bagintuen bi behi, xerriteian hazten gintuen bi urde -bat etxeko, bestea saltzeko- eta oilateian bazen hainbeste oilo eta oilaxko, nihaurek tipi hartan segurik ez bainintuen kondatzen ahal ... Lapin zombait ere ba bestalde ... Artetan, denen gainerat, ahate batzu, etxe sahetseko putzuan loriatzen zirenak." Aita, Bastidan jaioa, 1914-eko gerlan zauritu, goizik galduko du, "supitoki", 1953.an. Ama, Zelai Jauregikoa zuen: beraz haren familiarekin harreman asko ukan zuen Janbattit gazteak, eta horiez ardura mintzo zaigu.

Artetik "Eskerrak Franco jeneralari" delako kapitulu batean, kondatzen digu nola urtea zuelarik, oso gaxorik, zinez eri egon zen, hiltzorian: bizia salbatu zion, dohainik eta urririk gainera, Hazparnera ihes etorritako sendagile bizkaitar batek, Mathieu medikuak etsiturik, azken sokorritako jinarazi baitzion. Sendagile haren izenik inoiz ez du jakin Dirassarrek. Baina "haurretako espresa" zen hura, beraz pediatra, Bilbotik etorria, ez ote zitakeen Julian AJURIA-GUERRA famatua, Lapurdiko Milafrangan berriki zendua? (1911-1993). Nor baitzen ere mediku on hura, Franco-ren erasoak haizaturik zegon Hazparnen, eta horri esker salbatu zuen Dirassar umea. Horrela ulertu behar da Dirassarren esaldia, ez baita ondorik ere Franco-zalea gure hazpandar idazlea!

Hortik aurrera, Dirassarren ixtoriak aurrera darrai, Historia handi eta orokorraren barrena. Lau urte luzez, 1940-eko ekainetik 1944-eko abuztura, aleman soldaduen azpiko biziren da Hazparne, Lapurdi eta ia Baxe-Nabarre guziaz bezala (Zuberoa 1942-ko azaroan dute hartuko). Denbora ilunak denentzat, janaria ere xuhur zela, Alemania elikatu behar baitzuten herrialde okupatuek. Baina orohar, ez da hanbat pleini Dirassar, bere haurtzaroz oroitzapen miresgarriak ditu, pertsona baikorra baita ere. Gora-behera frango ikusi eta jasan du halere artetik: ixtripu (orgen azpian), ebakuntza, ezagun eta askazi batzuen heriotzak, ezin ulertuak haur batentzat ... Alemanetara itzultzeko azken aldi bat, denetatik bazen haien artean ere, bistan dena, eta emozio handi batekin idazleak aipatzen digu harentzat eta familiarentzat

zein on izan zen haietatik bat: egia esan, “apez protestanta” zela jakin zuten, Errusiako bide lazgarria hartu zuelarik buruzagien manuz.

“Elurra lodi” kapituluaren kondatzen digu nola, 1945-eko urtarril erditsutan, “bazter guztiak estali zituen elurrak eta hamabost bat egunez elur hori ez zen urtu ...” Bai, ongi gogoratzen naiz ni ere: b1zpahiru aldiz erori zen lodi, eta ondotik izotz gogorak egin zituen. Zuberora Pettarreko Larrabile auzo xokoan, 30 zentimetroko manta bagenuen, eta bizpahiru astez egon ginen eskolara joan gabe, hiruzpalau kilometro baigenituen mendixkaz egiteko Urrustoirano. Zelan ez pentsa François VILLON Erdi Aroko frantses poetaren neurtitz famatuari: “Mais où sont les neiges d’antan?” (Baina non daude lehengo elurrak?). Oi parabisu galduaren nostalgia!

Zoritzarrez, goizik dator gehituen mailera igaitea. Ikasle on izan zen Janbattit Zelaiko eskola publiko ttikian eta gero, lehen maila bukaturik, Hazparne hirian dagon Saint-Joseph kolejio katolikoan: “Brevet” delako diploma goizik ardietsi zuen, 14 urteetan. Baina hor utzi behar ukan zituen ikasketak, biziaren irabazten hasteko ... bulego batean ... Ba ofizina horretan, paper lanetan baino gehiago ari behar zuen berrina garbitzen!

Beharrik lehengusua zuen “kusi apez” batek bultzatu zuen “Herria” astekarian idazten hastera, pilotako berriak emanez “Arraya” izen ordezkorekin. Laster lotu zen ere herriko berri xeheen emateari “Basque-Eclair” eta “Sud-Ouest” egunkarietan. Beraz oin bat sartua zuen bere ogibidean, eta laster bigarrena sartuko zuen. Baina hor bukatzen dira haurtzaroa eta liburua. Artetik aipatua zuen Dirassarrek zer zion zor Piarres LARZABAL izeneko bikario bati, geroztik aipamen handia ukana duenari euskal letretan ...

Laster gelditu behar dut: gehiegi esanik badut eta dagoeneko. Liburuaren irakurtzea bezalakorik ez da ixtorio guziaren jakiteko. Goxatuz leitu dut hlruzpalau arratsez, lokartu aintzin. Bere autonomia badu kapitulu bakoitzak eta oso laburra da. Baina bat ezagutu ondoren, bestera pasa nahi zara, eta horrela dena bukatu arte.

Sotilki kondatua da, arin doa, irakur erreza da, euskara gozoan. Hazparneko euskara, Lapurdiko lurraldean izana gatik, mendebaleko behe-nafarrera mota bat da, lapurteratik nahiko hurbila, iparraldeko euskalkien ezagutzen hasteko zinez egokia. Bere xarma berezia badu, ahotik ezin utzia da. Arnasa hartzen duen bezain gostura emaiten du Dirassarrek. Ez bide zaigu horretan geldituko. Noizko beraz bigarren liburua?

J.L. Davant